



GIPUZKOAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

Federación Gipuzkoana de Triatlón

Anoeta Pasealekua 5 – 20014 DONOSTIA (Gipuzkoa)

Telf. 688662096 www.kirolak.net email:

gipuzkoakotriatloifederazioa@gmail.com

KLUBEI DIRU-LAGUNTZAK

-irizpideak-

Gipuzkoako Triatloi Federazioak, 2021. urtean, triatloia Gipuzkoan sustatzen duten kirol-ekitaldiak antolatzen dituzten kirol-elkarte eta klubei zein kantitateko diru-laguntzak eman erabakitzeko irizpideak zein izan diren adierazten da dokumentu honetan.

Bai gazteen artean triatloia sustatzeko ekitaldien kasuan, eta baita triatloiko lehiaketan kasuan ere, gipuzkoar kirolarien parte-hartzea saritzea erabaki da. Izan ere, gure federazioaren eskumena Gipuzkoara mugatzen da, eta beraz, gure funtzioa triatloia sustatzen duten ekitaldi horiek Gipuzkoan antolatzeaz gain, gipuzkoarren partaidetza saritzea da. Horregatik, diru-laguntzak ematerako garaian, kirol-ekitaldietan izandako gipuzkoarren partaidetza kopurua kontuan izatea da lehen irizpidea, parte-hartzaile gipuzkoar bakoitzeko diru kopuru bat emango da.

Bestalde, inklusioa eta berdintasuna lortzeko helburuarekin, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea eta emakumeen parte-hartzea saritzea erabaki da. Horregatik, emakumeen partaidetza bakoitzagatik diru gehiago emango da eta desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeagatik ere diru gehiago emango da.

Ezarririk irizpide horiek jarraian azaltzen diren moduan eraman dira praktikara. Hasteko, egun bakarreko ekitaldiak eta egun anitzeko ekitaldiak bereizi ditugu. Egun bakarreko ekitaldien kasuan, 3€ emango dira gizonezkoen partaidetza bakoitzarengatik, 5€ emakumezkoen partaidetza bakoitzarengatik eta 5€ desgaitasuna duten pertsonen partaidetza bakoitzarengatik. Egun bat baino gehiago irauten duten ekitaldien kasuan, iraupena kontuan edukiko da eta, 1€ emango da gizonezkoen partaidetza bakoitzarengatik, 2€ emakumezkoen partaidetza bakoitzarengatik eta 3€ desgaitasuna duten pertsonen partaidetza bakoitzarengatik. Hurrengo taulan laburbiltzen dira irizpideak kasu bakoitzaren arabera.

Partaidetza	Egun bakarra	Egun 1+
Gizonezkoa	3€	1€
Emakumezkoa	5€	2€
Desgaitasuna duen pertsona	5€	3€